

Abizenak euskalduntzeko
kanpaina

ABIZENA ERE EUSKARAZ



Abizena
~~E~~chenique
Izena Malen

OHIKO GALDERAK

- **Abizena nahi dudan moduan idatzi dezaket?**

Abizenaren euskal grafia zein den argitzeko, kontsultatu Euskaltzaindiaren Euskal Deituren Izendegia: <https://labur.eus/euskaltzaindiadeiturak>

- **Gurasoena aldatuta, seme-alabena zuzenean aldatzen da?**

Adin txikikoei automatikoki aldatuko zaie. 18 urtez goitikoan kasuan, norberak egin behar du tramitea.

- **Noiz bukatzen da izapidea?**

Kasuaren arabera, izapidea egiteko epe ezberdinak egon daitezke. Eskatera egiten den udalerrian jaiotakoa izanez gero, adibidez, nahiko epe motzean izan daiteke, baina beste zenbait kasutan, denbora gehiago har dezake. Edozein kasutan, izapidea abizenak aldatuta dituen hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria jasotzen denean bukatuko da.

Jaiotza, ezkontza eta seme-alaben jaiotza-agirietan aldaketa automatikoki bideratuko da, ofizioz, jaraunsletza edo herentzietan arazorik ez izateko. Honetaz gain, epaitegiak zenbait tokitara igorriko du: udalera, hauteskunde zentsura, poliziara...

- **Behin izapidea bukatuta, zer pauso jarraitu behar da?**

- Lehen urratsa NANA berritzea da. NANA berritzeko txanda hartu, eta eraman hitzez hitzeko jaiotza-agiri berritua (dagokion erregistroak edo epaitegiak helaraziko dizu, eta online ere eskura daiteke ondoko helbidean: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/nafarroako-erregistro-zibila>)
- Behin NANA berrituta, gainontzeko agirietan ere aldaketa egitea komeni da: gidatzeko baimena, bankuko kontuak, osasun txartela, bestelako karnetak... Hauek norberak bideratu beharko ditu, dagokion erakundearen bitartez.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA